



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

ERAKUNDE-TXOSTENA

www.sareensarea.eus



Argitalpen data: 2025ko abendua

Kontaktua:

www.sareensarea.eus

info@sareensarea.eus

Tel. 946 569 230

Iparraguirre kalea, 9 (Bilbo 48009)

Laguntzailea:

EUSKO JAURLARITZA

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

AURKIBIDEA

Sareen Sarea 4

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala 6

Sareen Sarea osatzen duten sareak

Astialdi Sarea 8

Euskadiko GGKEen Koordinakundea 9

EAPN.....10

EHLABE.....11

Elkartean12

Euskal Gorrak.....13

Euskofederpen14

FEVAS15

Gizatea16

Harresiak Apurtuz17

Hirekin18

Hirukide 19

Lares 20

ONCE 21

REAS Euskadi 22

BURU OSASUNA Euskadi 23

Umeekin 24

UNAD Euskadi 25



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren
Sektore Soziala

Tercer Sector Social
de Euskadi

Sareen Sarea izenaren barruan daude Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialako elkarten sareak. Sareen elkarte hori borondatezko izaerarekin eta irabazi-asmorik gabe bildu diren elkarteek osatzen duten esparrua da. Herri-tarren ekimen libretik sortu dira eta modu autonomo eta solidarioan funtzionatzen dute honako helburu hauek lortu ahal izateko interes orokorreko ekintzak bideratuta: gizarte-eskubideak aitortzea eta erabiltzea, dimentsio guztietan kohesioa eta gizarteratzea lortzea eta gizarte-kolektibo jakin batzuk ongizateko behar adinako E-Postaa batzue-tatik kanpo geratzea ekiditea.

Gizarte-ekimeneko, borondatezko ekintzako, irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatu eta autogobernatuek osatzen dute eta haien helburu nagusia gizarte-txertaketa bultzatzea eta egoera ahulenean dauden pertsonen, familien, kolektiboen eta komunitateen eskubideak modu eragingarrian erabiltzea da. Haiek guztiek era askotako esparruetan egiten dute lan: gizarte-zerbitzuetan, enpleguan, etxebizitzan, hezkuntzan edo osasun arloan besteak beste.

Boluntarioak, bazkideak, ordaindutakoak eta abar dituzte. Helburua biztanleria osoari honako hauek lortzen laguntzea da: gizarteratzea, bizi-kalitatea, gizarte-partaidetza eta gizarte, politika, ekonomia eta kultura arloko eskubideak modu eragingarrian erabiltzea. Horrekin lotuta, arreta berezia jartzen dute ezaugarritasun handieneko egoerak edo gizarte-bazterkeriakoak, babesgabetasunekoak eta/edo mendekotasunekoak jasaten dituzten kasuan.

Gure erakundeek kapital sozial, kapital erlazional eta giza kapital garrantzitsua bideratzen dute. Horiek horrela, sareak eratzen joan dira, eta sare horiek bigarren E-Postaako erakundeetan elkartu dira. Ikusi dugun bezala, Euskadin sektorea sare desberdinen osaketaren eta, 2014. urtean, **Sareen Sarearen** eraketaren ondorioz egituratzen joan da. Zalantzarik gabe, Euskadin Hirugarren Sektore Sozialak bizitako indartze- eta egituratze-prozesuak, beste eragileei dagokienez, elkarritzeta zibila (gizarte zibila sektore publikoarekin), hala nola, eragileen artean, gizarte eta garapen-ereduaren gaineko eztabaida sustatzea ahalbidetu du.



MISIOA

Egitekoak labur definitzen ditu **Sareen Sarearen** nortasuna eta helburuak, eta gure ibilbidearekin bat dator. Sareari bere existentzia osoan zehar zentzua ematen dion definizio iraunkorra da. Gizarteari nor garen helarazten lagundu ez ezik, sarea osatzen duten sareen eta pertsonen aurrean nor garen adierazten du ere.

Gizarte elkartua, inklusiboa, solidarioa eta parte-hartzailea sustatzea, persona guztien eskubideak modu berean errespetatuko dituen eta, batez ere, ahulenei arreta berezia jarriko diena; baita guztion ongizatea eta eraldaketa sozialarekiko konpromiso aktiboa bultzatzea ere.

Sareen Sarea Hirugarren Sektorre Soziala elkartu, indartsu eta onartu baten alde lan egiten du, eragile sozial zein instituzionalekin elkarriketarako gaitasuna duen sektorea izatea baitu helburu.

IKUSPEGIA

Sareen Sarearen ikuspegiak, bere 2024-2027rako III. Plan Estrategikoan bilduta, 2027rako nahi dugun etorkizuna jasotzen du. Ikuspegia betetzeko helburuarekin prestatzen dugu; hortaz, persona guztientzako eguneroko erronka etengabea da.

2027an nolakoa izan nahi du **Sareen Sareak**?

2027an, **Sareen Sareak** erreferentia den Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala lortu nahi du; gizarte-aldaketaren eragilea, eragin handiakokoa eta indartsuagoa izango den sektorea. Era berean, gizarte kohesionatu, zuzen, solidario eta erantzunkidea lortzeko lan egingo du.

Zentzu horretan, **Sareen Sareak** ondorengo ikuspegia du:

- Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala biltzea eta erreferentia izatea gizartearen onartua izan dadin.
- Esparru sozial eta politikoko eragile ezberdinekin elkarriketarako gaitasuna izatea.
- Gizarte justuagoa, elkartuagoa, inklusiboagoa, solidarioagoa, berdinzaleagoa, partehartzaileagoa eta demokratikoagoa eraikitzen laguntzea.
- Inklusioa, bizi-kalitate hobea eta pertsonen eskubideen defentsa eraginkorra bermatuko dituen.
- Hirugarren Sektorre Soziala indartzea eta, aniztasuna kontuan hartuz, kohesionatuagoa izatea.

Horretarako, **Sareen Sareak** etorkizun-sena, asmo berritzailea, erantzukizunez eraikitzeko gaitasuna, diskurtso sendoa, sektoreko balioen eta horrek eragiten duen eraldaketa sozialaren bozgorailu eta bestelako gizarte-eragileekin harreman finkatua duen sareen sarea izan nahi du, Hirugarren Sektorre Sozialaren aniztasuna biltzen duena, Hirugarren Sektorre Sozialak Euskadiko lurralde historikoetan dituen eredu eta idiosinkrasia desberdinak kontuan hartzen dituen eta Estatuko zein erkidegoko beste sareek aintzat hartzen duten sarea, alegia.

BALIOAK

- **Elkartasuna.** Egoera kaltetuenetan daudenen eskubideen ardura.
- **Eraldaketa.** Eraldaketa sozialaren erantzukizuna eta konpromisoa, eskubideen defentsa eta aldarrikapena; herritarren partehartzea eta erantzukizun aktiboa bultzatuz.
- **Gardentasuna.** Erabakiak eta informazioa gardentasunez tratatzea da **Sareen Sarearen** erantzukizuna, informaziorako sarbidea erakundeetako kideei, administrazio publikoari, gizarteeragileei eta gizarteari emanez.
- **Kooperazioa.** Hirugarren Sektoreko erakundeekin, administrazioarekin eta herritarrekin kooperatzea, partekatutako helburuak eta aurreikusitako egitekoa betetzeko.
- **Aniztasuna.** **Sareen Sarearen** kideen eta sektorearen beraren aniztasuna onartzea, parte hartzea eta barne-demokrazia bermatuz.
- **Independentzia.** Pentsamendurako eta ideologiarako independentzia, eta independentzia instituzional, politiko eta ekonomikoa, gure elkarriketa eta eragina gizarte eragileekin ez nahasteko.
- **Demokrazia.** Egitekoa eta ikuspegia lortze bidean, erabakiak bidezko parte-hartzearekin eta erantzukizun partekatuarekin hartzea, kide guztiek onartutako diskurtsoak, posizionamenduak eta akordio inklusiboak lortzeko.
- **Autonomia eta errespetua.** Sare bakoitzaren errealitatearekiko eta **Sareen Sarearen** diskurtsoarekiko, posizionamenduarekiko eta aldarrikapenarekiko errespetua erakustea, interés komunen alde lan eginez.

ILDO ESTRATEGIKOAK

1. **Gizarte-eredu baterantz aurrera egiteko erreferentziatzko gizarte-eragilea izatea eta sektorearen rola aitortzea.**
2. **Aliantza eta harreman estrategikoak eraikitzea, kanpoko komunikazio egokia izatea eta politika publikoetan eta elkarriketako eta solaskidetzako guneetatik ongizate-ereduan eragina izatea.**
3. **Barne E-Postaan eraikitzea eta Euskadiko hirugarren sektore sozial sentitzea (errealitate eta sare berriak, elkarren arteko ezagutza eta partekatutako gogoeta gehitzea).**
4. **Sareen Sarearen** malgutasuna, gardentasuna, egituraketa eta jasangarritasuna sendotzea (egitura, talde profesionala, parte-hartzea, kohesioa, gardentasuna...).

EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALA

Euskal gizarteak gizarte-sare zabal, anitz eta aktiboa izan du eta dauka, herritarren ekimen libreen ondorioz sortutako erakundeei esker. Gizarte osoaren eta, bereziki, egoera, arazo edo beharrian sozialek eragindako pertsona, familia, talde edo komunitateen -Hirugarren Sektore Sozialaren- elkartasun antolatua eta gizarte parte-hartzea sustatzen dute erakunde horiek.

2016ko maiatzaren 12az geroztik, funtsezko tresna bat daukagu esku artean, **Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren 6/2016 Legea**, alegia. Hirugarren Sektore Sozialari buruz Estatuan dagoen lehendabiziko legea da eta mugarri adierazgarria da guretzako.

Izan ere, Hirugarren Sektorre Sozialaz hitz egitean, juridikoki aitortutako definizio bat izan dezakegu orain; positiboki definitzen gaitu, sektore osoa barne hartzen du eta nortzuk eta zenbat garen jakinaraztea ahalbidetzen digu.

Legearen arabera, **Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala osatzen dugun erakundeek honako ezaugarriak dauzkagu:**

- **Gizarte ekimena** (ekintza boluntarioa; gizarte zibilaren parte gara -hartatik eta harentzako sortuak-, irabazi asmorik gabekoak eta parte-hartzaileak).
- **Gizarte esku-hartzea** (gure jarduera gizarte zerbitzuen arloan burutzen dugu, enplegurako aukera sustatzen, arlo edo sistema ezberdinen arteko elkarreraginerako espazioak sortzen -soziosanitarioak, soziolaborala...- eta garapenerako lankidetzak ahalbidetzen).
- **Egoitza eta jarduera Euskadin ditugu.**
- Helburu nagusia da babesgabetasun edo gizarte bazterkeria egoeran bizi diren edo berdintasun eza, urritasuna edo menpekotasuna duten pertsona, familia, talde, kolektibo edo komunitateen **gizarteratzea, garapenerako lankidetzak eta eskubideen egikaritze efektiboa sustatzea.**

Bestalde, Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialaren Barometroan (2023), definizio berean oinarritutakoan, jasotakoaren arabera:

- 4.200 erakunde baino gehiago gara.
- 170.000 boluntario.
- 45.000 soldatapeko langile.
- EAEko BPGari %2,4ko ekarpena egiten diogu.

Era berean, sektoreak hainbat esparrutan egiten du lan, adibidez: soziala-ze-harkakoan edo hirikoan (adinekoen, emakumeen, etorkinen eta abarren erakundeak biltzen ditu), Gizarte Zerbitzuetan, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzan, Aisialdian, Osasunean, Enpleguan eta beste batzuetan. Sektorre horretako erakunde guztiek partekatzen dute gizarteak eraldatzeko helburua eta gizarte-proiektu justuago eta parekideago baten defentsa.

Hirugarren Sektorre Soziala, hortaz, funtsezko aktiboa da euskal gizartean. Euskal gizarteak ezin dio aktibo horri uko egin, behar-beharrezkoa baitu gizarte bidezko, solidario, kohesionatu, parte-hartzaile eta demokratiko gisa finkatzeko, baita, gizarte esku-hartzearen esparruan, beharrezko erantzun egokiagoa emateko ere (erantzun integrala, hurbila, pertsonalizatua edo parte-hartzailea, besteak beste); betiere, sektoreen arteko lankidetzan oinarrituta eta erantzunen hartzaile diren pertsona, familia eta komunitateen parte-hartzeaz baliatuta, bestelako baliabide eta alternatibak aprobetxatuz.

Hirugarren sektorre Sozialeko erakundeek, gainera, kapital sozial, kapital erlazioal eta giza kapital garrantzitsua bideratzen dute. Eta gizarte esku-hartze arloan jarduera ekonomiko adierazgarria garatzen dute, horren bitartez inguru ekonomiko eta soziala sortuta. Enplegua sortzen dute eta sektorre publikoarekin lan egiten dute, erantzukizun publikoko zerbitzuez hornitzeko eta lan-aukerak sortzeko. Laneratze-prozesuetan ere bide laguntza eskaintzen dute, bereziki, urritasuna duten pertsonen eta bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen zuzenduta.

Webgunea: www.astialdisarea.eus
E-Posta: bulegoa@astialdisarea.eus
Telefonoa: 688 87 65 29
Helbidea: Erronda kalea - 5 zenbakiaren
aurrean (BBKGUNEA) Elkargunea
(48005 Bilbo)

BAZKIDEAK ETA BOLUNTARIOAK

14 erakunde.

80 talde baino gehiago Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban.

erakundeak.astialdisarea.eus

ZEIN ERAKUNDEK OSATZEN DUTE ASTIALDI SAREA?

Aisi-Hezi Fundazioa, Arduradun Eskola, Bizkaiko Gaztetxoaren Koordinakundea, Bosko Taldea Federazioa, EDE Fundazioa-Astaldiko Eskola, Euskalerriko Eskautak Araba, Euskalerriko Eskautak Bizkaia, Gaztetxo Eskola, Gipuzkoako Gaztetxoaren Elkartea, Hezkide Eskola, Hezten-Astaldi Euskaltzalea, Kiribil Sarea, Urtxintxa Eskola.

NOR GARA?

Astaldi Sarea, Euskal Herriko esku-hartze sozialerako eta denbora libreko aisialdirako erakundeen sarea.

MISIOA

EAEko aisialdiko/astaldi hezitzaileko hezkuntza bultzatzea eta indartzea: Bizkaia, Gipuzkoa, Araba. Astaldi hezitzailea haurren, nerabeen eta gazteen eskubide gisa, eta eskubideak bermatzeko tresna gisa. Hauek garatuz: Haurren eta Nerabeen Euskal Legea, Gazteen Euskal Legea, Hezkuntzaren Euskal Legea eta Herrialde-erronkak eta -ibilbideak haur, nerabe, gazte eta familiekin. Hezkuntzarako Astaldia bultzatzea eta indartzea Euskadin, eraikuntzarako, eraldaketarako eta gizarte-kohesiorako tresna gisa. Astaldi hezitzailea oso tresna indartsua eta berritzailea da euskal komunitatea, auzoko eta tokiko komunitateak eraikitzeko (loturak, baliokak eta erantzukidetasuna). Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko eragileekin, Eusko Jaurlaritzako sailekin, foru-aldundiekin eta udalekin.

ASTIALDI SAREAK konpromisoa du "10 HEZKUNTZA-ERRONKAREKIN". 1) INKLUSIOA, BABESA ETA ESKUBIDE SOZIALAK. 2) EUSKAL KOMUNITATEA. 3) FEMINISMOA. 4) BIZIMODU OSASUNGARRIA. 5) GIZARTE DIGITALA, ZIENTZIA, TEKNOLOGIA, EZAGUTZA ETA BERRIKUNTZA. 6) EKINTZAILERAK ETA ENPLEGAGARRITASUNA. 7) BALIOAK. 8) KLIMAREN INGURUKO KONTZIENTZIA. 9) KOMUNITATEAREN GARAPENA, HERRITARREN PARTE-HARTZEA, BOLUNTARIOTZA. 10) AISIALDIA, KULTURA ETA ARTEAK.

LANAREN ARDATZAK

Plan estrategikoa eta urteko ekintza-plana 12 programaren inguruan egituratzen dira, eta proiektu, jarduketak eta ekintzetan zehazten dira.

1. ASTIALDI EZAGUTZA Ezagutza, berrikuntza eta prestakuntza sortzea.
2. ASTIALDI AUKERAK. Astaldi hezitzailearen ekarpenak eta ekarpenak ikusaraztea.
3. ASTIALDI HEZIGARRIA SUSTATZEKO 2030 EUSKAL ESTRATEGIA.
4. ASTIALDI POLITIKAK. Eragin politikoa eta soziala.
5. ASTIALDI ERAKUNDEAK. ASTIALDI SAREA erakundeei laguntzea. Astaldi hezitzaileko erakunde eta eragileekiko lotura.
6. SAREEN SAREA Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala.
7. ELKARRIZKETA ZIBILA. Mahaiak, prozesuak eta espazioak.
8. ASTIALDI KONEXIOAK. Gizarte-, kultura- eta hezkuntza-eragileekiko loturak.
9. ASTIALDI ESTRUKTURA: BIZKAIA, GIPUZKOA, ARABA, NAFARROA. Lantaldeen eta laneko prozesuen artikulazioa.
10. ASTIALDI TRESNAK. Administrazio ekonomikoa, juridiko-administratiboa eta errekurtsioa.
11. ASTIALDI KOMUNIKAZIOA. Komunikazio-estrategia eta -euskarriak.
12. ASTIALDI TALDEAK. Taldeei laguntzeko programa.



EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA
COORDINADORA
de ONGD EUSKADI

NOR GARA?

Euskadiko Garapenerako GKE-en Koordinakundea 1988an sortu zen kide diren GGKE-en jarduerak ahalik eta koordinatuenak, koherenteenak, egokienak eta eraginkorrenak direla ziurtatzeko eta horrek berekin dakar elkarren artean hausnartzea, eztabaidatzea eta lan egitea.

Garapen lanetan diharduten GKE-ez osaturiko kolektibo bat gara. GGKE hauek Jokabide Kode komun bati atxikitzea erabaki dute eta horrela egitura antolatu bat osatu dute lankidetzaren eta eraldaketa sozialerako hezkuntzaren arloetan lan egiteko, genero-ekitatean oinarritutako giza garapen iraunkorraren paradigmatari jarraituz.

MISIOA

Gure lana eraldaketa sozialaren esparruan kokatzen da, desberdintasunak gaindituz eta mundu justuago baten alde borroka eginez. Testuiguru horretan, garapenerako lankidetzak oinarritzat dauzka elkartasuna, desinteresa eta dohaintasuna.

Halaber, kide diren erakundeen ekintzak zuzentzen dituzten baloreak islatzen ditugu. Garrantzi berezia ematen diogu demokrazia partehartzailea, independentzia, gardentasuna, koherentzia eta genero ekitatea lantzeari.

Kalitatezko garapenerako lankidetzak sustatzea dugu helburu, euskal erakunde publiko zein pribatuaren artean eta kide diren erakundeen artean. Kide diren erakundeen prozesuei laguntzea, dauzkaten gaitasun politiko zein teknikoak indartuz. Hala ere, gure inguruneko eraldaketa soziala bultzatzen dugu, herritarren artean elkartasunaren kultura sustatuz, desberdintasuna eta pobrezia sortzen duten egiturak aldatuz.

LANAREN ARDATZAK

- Sektorea eta gure erakundea sendotzea.
- Euskal lankidetzak-politikaren defentsa.
- Komunikazioa eta gizartearen eraldaketa kontzientzia kritikoa pizteko.

Webgunea: www.ongdeuskadi.org

E-Posta: coordinadora@ongdeuskadi.org

Telefonoa: 944 150 300

Helbidea: Erronda kalea, z/g
(5. zenbakiaren parean), 3. solairua
(48005 Bilbo)

BAZKIDEAK ETA BOLUNTARIOAK

11 erakunde sortzailerekin jaio zen 1988-an, eta 2025ean 84 GGKEk osatzen dute.

ZEIN ERAKUNDEK OSATZEN DUTE EUSKADIKO GGKE-EN KOORDINAKUNDEA?

Acnur / Unhcr Euskal Batzordea, Adeco, Adra, Adsis, Elkartea, Alboan, Ams - Amigos Por Un Mundo Solidario, Arquitectura Sin Fronteras, Asamblea De Cooperación Por La Paz, Asociacion Africanista Manuel Iradier, Asociacion Euskadi-Cuba, Asociacion Amigos De La Rasd - Araba, Asociacion Amigos De La Rasd Gipuzkoa, Ayuda En Accion, Ayuda Mas, Behar Bidasoa, Bizilur, Calala, CalcutaOndoan, Caritas Bizkaia, Caritas Gipuzkoa, Economistas Sin Fronteras, Edex, Educo, Egoaizia, Elan Euskadi, Emaus Fundacion Social, Entre Amigos-Lagun Artean, Enraiza Derechos, Etiopia Utopia, Fasfi-Fundación Ayuda Solidaria Hijos De Jesús, Farmamundi, Fisc Fundacion Internacional De Solidaridad Compañía María, Fisc Cooperacion Y Desarrollo, Fundación Itaka-Escolapios, Foro Rural Mundial, Garabide, Garapena, Haurralde, Hegoa, Hirugarren Adina 3. Mundurako, Icli, Ingeniería Sin Fronteras, Interred Euskal Herria, Iquitanz, Iscod - Euskadi, Jovenes Y Desarrollo, Justicia Alimentaria, Kainabera, Kcd - Kultura, Comunicaciones Y Desarrollo, Lumaltik, Manos Unidas, Martin Etxea, Médicos Del Mundo, Medicusmundi Araba, Medicusmundi Bizkaia, Medicusmundi Gipuzkoa, Misiones Diocesanas Vitoria, Misiones Diocesanas Bilbao, Misiones Diocesanas Donostia, Misiones Salesianas, Mugarik Gabe, Mugen Gainetik, MunduBakean, Mundubat, Mundukide, Oscarte, Oskar Romero Solidaritza, Oxfam Intermon, Paz Con Dignidad, Paz Y Solidaridad, Proclade Euskadi, Proyde - Proega, Rokpa, Save The Children, Serso San Viator, Setem Hegoa Haizea, Sodepaz, Solidaridad Educacion Y Desarrollo (Sed), Solidaridad Internacional, Solive-Solidaridad Vedruna, Tau Fundazioa, Un Etxea, Unrwa Euskadi, Zabalketa.



Webgunea: www.eapneuskadi.net
E-Posta: coordinacion@eapneuskadi.net
Telefonoa: 944 161 884
Helbidea: Harrobi plaza 4, 3. solairua
(48003 Bilbo)
Facebook: @eapn.euskadi
Twitter: @Eapn_Euskadi

BAZKIDEAK ETA BOLUNTARIOAK

41 erakunde bazkide.

5.000 boluntario eta profesional.

175.000 artatutako pertsona erakunde bazkideetan.

ZEIN ERAKUNDEK OSATZEN DUTE EAPN?

Accem, Adsis, Agiantza, Amiarte, Berriztu, Beti Gizartean, Bidegintza, Bidesari, Bizitegi, Caritas Euskadi, Cear, Claret Fundoa, CoMisioa Antisida de Bizkaia, Ede, Elkarbanatuz, Etorkintza, Euskarri, Fondo Formación, Gizakia, Guitiriz, Harribide, IrseAraba, Irse Euskadi, Itaka-Escolapios, Izangai, Kale dor Kayiko, Koo-pera, Laguna Artean, Lagungo, Margotu, Médicos del mundo, Peñascal, Sartu, Sec. General Gitano Euskadi, Sortarazi, Susterra, T4, Zabalduz, Zehar errefuxiatuekin, Zubietxe.

NOR GARA?

European Anti Poverty Network - EAPN (pobreziaren eta gizarte- bazterkeriaren aurkako borrokarako Europako sarea) Europar Batasuneko kide diren herrialdeetan pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurkako borrokan aritzen diren GKE eta talde batzuek osatutako koalizio independentea da.

EAPN pobrezia eta gizarte-bazterkeria desagerraraztearekin konprometita dago eta pobrezia eta gizarte-bazterkeria pairatzen ari diren pertsonen beren eskubideak eta betebeharrak gauzatu ahal izatea du helburu, haien isolamenduari eta egoerari konponbidea emateaz gain. Bi helburu horiek Europar Batasunaren eztabaida politikoetara eramatea da EAPN-ren erronka nagusia.

EAPN Euskadi 1997an eratu zen modu ofizialean, pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurkako borrokan jarduten duten hirugarren sektoreko erakundeak biltzeko asmoz. Espainia mailako EAPNri eta Europa mailako EAPNri lotuta dago.

MISIOA

- Pertsonen parte-hartzea eta eskubideak sustatzen ditu.
- Agenda politiko eta sozialean sartzen ditu pobrezia, bazterkeria, berdintasunik eza eta gizarteratzea. Jarrera kritikoa du egoera horien aurrean eta proposamenak egiten ditu.

LANAREN ARDATZAK

- **Zaurgarritasun- eta pobrezia-egoeran eta gizarartetik baztertuta dauden pertsonetikiko konpromisoa.**

EAPN Euskadik zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonetikiko konpromisoa mantendu eta berretsi du. Zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonen autonomia, defentsa, babesa, sustapena eta ahalduntzea helburu ditu konpromiso honek.

- **Sarea indartzea, erakundeen elkarketa modura.**

EAPN Euskadi sare modura existitzen bada, haren bazkide diren erakundeek bat egin nahi izan dutelako da. Izan ere, talde-lana da erakunde horien helburu komunak betetzeko bide bakarra. Bazkide diren erakundeek diagnostiko soziala, helburuak eta jakituria partekatu nahi dituzte. Esperientziak eta ezagutza trukatu nahi dituzte. Hori guztia, printzipio etiko komun batzuk eta lankidetzan oinarritutako harremana oinarri hartuz.

- **Gizartean eragina izatea.**

EAPNk gizartean tokia lortu eta eragina izan nahi du, gizartea bidezkoagoa eta inklusiboagoa izan dadin, pobrezia eta bazterkeria ikusgarri eginez eta jarrera eta proposamen berriak ezagutzera eman. Oro har gizarteak eta euskaldunek Euskadiko pobrezia- eta bazterkeria-egoerak, guk arlo horretan egindako lana eta gure iritziak eta proposamenak ezagutzea nahi dugu. Administrazio publikoari, talde politikoei eta eragile sozialei ere helarazi nahi dizkiegu gai horien inguruan ditugun iritziak.

NOR GARA?

EHLABE Laneratzea eta Gizarteratzea (Euskal Herriko Lan Babestuaren Elkartea) irabazi-asmorik gabeko erakundeen euskal elkarte da, 1987az geroztik desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea sustatzen duena.

Misioa

Erakundeekiko eta gizarte-eragileekiko elkarriketa-ekintzak sustatzen eta garatzen ditugu, kide diren erakundeen arteko lankidetzatik abiatuta eta, interes orokor gisa, desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasuna hobetzea eta gizarteratzea partekatuta.

EHLABEko erakunde guztiak:

- Gizarte-ekonomiako erakunde dinamikoak eta bultzatzaileak dira, merkatuari balioa ematen diotenak jarduera lehiakorren eta kudeaketa profesionalaren bidez.
- Irabazi-asmorik gabekoak, ekimen sozial edo publikokoak dira, eta onura proiektuaren garapenean bertan inbertitzen dute, jasagarritasuna bilatuz.
- Parte-hartzeko kudeaketa-sistemak dituzte eta zeharkako ikuspegiarekin lan egiten dute, unibertsaltasunaren eta genero-berdintasunaren printzipioak txertatuz.

MISIOA

Desgaitasuna duten pertsonentzako lan-aukerak sortzea da EHLABEren lanaren ardatza, pertsona horiek gizarteratzeko eta pertsona modura zein lan arloan garatzeko. Izan ere, EHLABErentzat lana da parte-hartze soziorabalerako tresna.

EHLABE osatzen duten erakunde guztiak erakunde dinamiko eta traktoreak dira, merkatuari balioa ematen diotenak, lehiakortasun-jardueren eta kudeaketa profesionalaren bitartez. Erakunde horiek irabazi-asmorik gabekoak dira eta proiektuaren garapenean bertan inbertitzen dituzte irabaziak, proiektu iraunkorra izan dadin. Parte-hartzeko kudeaketa-sistemak dituzte eta zeharkako ikuspegiarekin lan egiten dute, unibertsaltasunaren eta genero-berdintasunaren printzipioak txertatuz.

LANAREN ARDATZAK

EHLABEren ekintzak lau jarduera-ardatzen inguruan antolatzen dira:

- EREDUAREN ERAGINA, SUSTAPENA ETA INDARRALDIA.
- INKLUSIOA ETA ENPLEGAGARRITASUNA, ERREALITATE BERRIEKIN BAT.
- LANKIDETZA ETA ELKARLANA.
- KANPO-KOMUNIKAZIOA, SAREEN GARAPENA ETA SENTSIBILIZAZIOA.

Webgunea: www.ehlabe.org

E-Posta: ehlabe@ehlabe.org

Telefona: 943 346 224

Helbidea: Oto hiribidea 50, 48. pab. (01010 Gasteiz)

X: @ehlabe

Linkedin: <https://www.linkedin.com/company/ehlabe/>

BAZKIDEAK ETA BOLUNTARIOAK

EHLABE eta bere erakundeak ahalmen-urritasuna duten pertsonen enplegurako politika aktiboak gauzatzeko esku hartzen duten eragileak dira eta beraz, enplegarritasun arloko hainbat programa kudeatzen dituzte eta lanertzeko ibilbide osoak koordinatzen dituzte.

2024an, EHLABEk eta bere erakundeek, batez beste, desgaitasuna zuten 8.716 pertsona izan zituzten beren enplegu-zentro berezietan, eta 1.999 pertsona Okupazio Zerbitzuan.

EEE-etan enplegatutako pertsonez gain, 2024an 13.000 pertsonak baino gehiagok jaso dituzte laguntzak enplegarritasun-zerbitzuetan: merkatu arrunta enplegu lagunduaren bidez, prestakuntza, orientazioa, etab.

ZEIN ERAKUNDEK OSATZEN DUTE EHLABE?

Gaur egun Euskadiko hiru lurralde historikoetako ekimen sozial eta publikoko hamalau erakunde osatzen dute EHLABE:

- **Araba:** INDESA, RAEP.
- **Bizkaia:** Cermas - Rafaela María, Apnabi, Bidaideak, Bizgorre, Eragintza, Gallarreta, Lantegi Batuak, Ranzari, USOA eta Ilunion.
- **Gipuzkoa:** Gureak, Katea Legaia eta Sutargi.

Webgunea: www.elkartean.org
E-Posta: elkartean@elkartean.org
Telefonoak: 943 316 770 - 639368321
945 053 666 - 945 225 516
Helbidea: Ondarreta pasealekua 5,
behea (20018 Donostia)

BAZKIDEAK ETA BOLUNTARIOAK

Elkarteanek EAEko hiru lurralde historikoetako 16.000 bazkide ordezkatzeko ditu.

ZEIN ERAKUNDEK OSATZEN DUTE ELKARTEAN?

30 elkarte biltzen ditu eta Eginaren Eginenez Arabak, Elkartu Gipuzkoak eta Feko Bizkaia osatzen dute.

NOR GARA?

ELKARTEANek (desgaitasun fisikoa duten EAEko pertsonen elkarte koordinatzailea) desgaitasun fisikoa duten Euskadiko pertsonen elkartzemugimendua ordezkatzeko du. 1986an sortu zen eta orain arte izandako ibilbide luzean desgaitasun fisikoa duten pertsonen eskubideen defentsa eta aukera-berdintasuna aldarrikatu izan ditu, guztiz inklusiboa eta irisgarria den gizarte baten alde eginez.

MISIOA

- Pertsona guztien eta bereziki desgaitasuna eta/edo mendekotasuna duten pertsonen eskubideak eta betebeharrak aitortu eta errespetatu behar direla erakusten eta aldarrikatzen duen lurralde arteko gizarte-ekintza bateratua egitea, EAEko administrazio publikoaren, eragile sozialen, urritasun fisiko eta organikoa duten pertsonen eta bere familien eta oro har biztanleria osoaren aurrean.
- Desgaitasun fisiko eta organikoa duten Euskadiko pertsonen errealtatearen berri ematea biztanleria osoari, errealtate hori ikusgarri egiteko eta biztanleria kontzientziatzeko.
- Kolektiboa eta hura osatzen duten erakundeak ordezkatzeko EAEko administrazio publikoaren lurralde arteko espazio eta erakundeetan, kolektiboa osatzen duten kideen eta erakundearen beraren interes partekatua oinarri hartuta.
- Elkartze-mugimendua koordinatzea eta lurralde arteko garapen politikorako prozesuetan parte hartzea, interes partekatua oinarri hartuta.

LANAREN ARDATZAK

- Desgaitasun fisikoa duten pertsonen aukera-berdintasuna eta eskubideak sustatzea.
- Euskadiko erakunde publiko eta/edo pribatuak inplikatzeko desgaitasun fisikoa duten pertsonen kolektiboaren aukerak berdintzeko lan horretan.
- Desgaitasun fisikoa duten Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen aukera-berdintasuna aldarrikatzea, diskriminazio bikoitza jasaten baitute: emakume izateagatik alde batetik, eta desgaitasun fisikoa izateagatik, bestetik.
- Desgaitasun fisikoa duten pertsonen parte-hartzea eta gizarteratzea aldarrikatzea ohiko baliabide komunitarioetan, espezifikoa ez direnetan.
- Ondasunak, zerbitzuak, inguruak eta baliabideak pertsona guztientzat irisgarriak izan daitezela eskatzea.
- Baldintzen eta aukeren berdintasunean oinarritutako hezkuntza sustatzea, gaitasun desberdinak errespetatuz.
- Desgaitasun fisikoa duten pertsonen irekia, inklusiboa eta irisgarria den lan-inguru batean lan egiteko duten eskubidea bermatzea.
- Euskal osasun-sistemaren estaldura hobetzea, mailegu ortoprotesikoen eta osasun-zentroen irisgarritasunaren arloan.

NOR GARA?

Euskal Gorra irabazi-asmorik gabeko erakundea da, 1978an sortua, EAE-ko Pertsona Gorren Elkarteak bildu eta ordezkatzeko behararen ondorioz, eta euskal lurralde osoko gorrei gutxieneko zerbitzu-maila bermatzea du helburu.

Euskal Gorra elkarteak, Euskadiko gorren ordezkari eta erreferente gisa, kide diren elkarten aldarrikapenak bateratzen ditu, federazio batean gorren eskubideen eta interesen defentsa bideratzeko eta koordinatzeko. Euskal Gorra Euskadiko pertsona gor guztientzako proiektua da, edozein delarik ere haien generoa, adina, arraza, orientazioa... Denok tokia izango dugun eta gustura sentituko garen etxea.

MISIOA

Gure filosofiaren abiapuntua aniztasuna, kultura, nortasuna eta gorren komunitatea, zeinu-hizkuntza, errespetatzea da. Desberdin egiten gaituen eta batzen gaituena. Aniztasunaren aberastasunean sinesten dugu, pertsona gorrek gizarteari egiten diogun ekarpenean, eta hori da erakunde honen jarduera-ildo ezartzen duen printzipioa.

Hori guztia euskal gizartearen erabat integratzea eta parte hartzea lortzeko helburuarekin, gure egunerokotasuna oztopatzen duten komunikazio-oztopoak kenduz, eta bai gorren elkarte-mugimendua, bai haren kultura defendatuz eta sustatuz: berezko hizkuntza (zeinu-hizkuntza), ohiturak eta tradizioak. Balio garrantzitsuak ere defendatzen ditugu, hala nola genero-berdintasuna, euskararen sustapena eta ingurumenarekiko errespetua.

LANAREN ARDATZAK

Federazio bat gara, non elkarteek beren iritziak adierazten dituzten eta elkarrekin lan egiten duten helburu komunengatik inguruan, pertsona gorren kezken inguruan, gure eskubideen eta beharren defentsan.

Hori guztia 5 ardatz estrategikoren inguruan biltzen da:

1. Euskal Gorra-en elkarte-mugimendua indartzea eta sendotzea.
2. Informazioaren eta komunikazioaren eskuragarritasuna sustatzea.
3. Euskal Gorra-en jarduera soziala sustatzea eta bistaratzea.
4. Zeinu-hizkuntzaren normalizazioa Euskadin.
5. Pertsona gorrei arreta integrala emateko zerbitzuak ematea.

Euskal Gorra-en azken helburua euskal gorren ahalduntzea eta erabateko autonomia lortzea da, gure elkarte-mugimenduaren printzipio bereizgarri batetik abiatuta:

“Ezer ez pertsona gorrentzat pertsona gorri gabe”.

Webgunea: www.euskal-gorrrak.org

E-Posta: info@euskal-gorrrak.org

Telefonoa: 944 765 052

Fax: 944 766 052

Helbidea: Hurtado de Amezaga, 27 - 6. solairua (48001 Bilbao)

BAZKIDEAK ETA BOLUNTARIOAK

Euskal Gorra elkarteak gorren eta entzumen-urritasuna duten pertsona guztien eskubideak defendatzen ditu EAEn, eta 65.000 pertsona inguru direla kalkulatu da. Urtero, batez beste, 5.000 pertsona ditugu erakundearen zerbitzuen zuzeneko onuradun. Federazioak 25 profesional propioko sare bat du, eta kide diren elkarteetakoak eta boluntarioria-sare zabal bat gehitu beharko litzazkieke horiei.

ZEIN ERAKUNDEK OSATZEN DUTE EUSKAL GORRAK?

Basauriko Gorra: Basauriko Pertsona Gorren Elkarte.

Arabako Gorra: Arabako Pertsona Gorren Elkarte.

El Botxo: Pertsona Gorren Bilboko Elkarte.

Coorvisor (Bizkaiko Gorra Koordinakundea), erakunde laguntzaile gisa.

Gipuzkoa Gorra: Gipuzkoako Pertsona Gorren Elkarte.

E-Posta: info@euskofederpen.com

Telefonoa: 943 464 662

Helbidea: Prim 49, 2. ezk.
(20006 Donostia)

BAZKIDEAK ETA BOLUNTARIOAK

Boluntariotza da gure aktiborik handiena. Pertsona nagusientzako gizarte-zentroetako 225 bazkide.

ZEIN ERAKUNDEK OSATZEN DUTE EUSKOFEDERPEN?

EAEko hiru lurralde-elkarteak biltzen ditu EuskoFederpen-ek: Las Cuatro Torres (Araba), Nagusiak (Bizkaia) eta Agijupens (Gipuzkoa).

NOR GARA?

Pertsona nagusien alde lan egiten 1980tik.

1980tik, EuskoFederpen-ek EAEko pertsona nagusien elkarteak koordinatzeko eta ordezkatzeko lan egiten du. EAEko hiru lurralde- elkarteak biltzen ditu: Las Cuatro Torres (Araba), Nagusiak (Bizkaia) eta Agijupens (Gipuzkoa).

Gure helburuak pertsonen eta taldeen autonomia eta ahalduntzea sustatzera, ingurunea hobetzera eta gure erakundeekin partaidetza edo kobernantzara bideratzen ditugu.

Gure lana da ahal dugun guztia egitea EAEko hiru lurraldeetako adinekoen egoera, eskubideak eta zerbitzuak hobetzeko.

MISIOA

Erkidegoko eta estatuko erakundeen aurrean (Eusko Jaurlaritza, Europako Adinekoen Estatuko Kontseilua, hala badagokio) elkarte horretako kide diren elkarteak ordezkatzeko, eta dagokien kontseilueta haien ize-nean parte hartzea.

Gure helburuak pertsona nagusien autonomia, parte-hartzea eta ahalduntzea sustatzera bideratzen ditugu, demokrazia parte-hartzailearen printzipioa oinarritzeko premisa izanik.

Gure bazkideak ahalduntzen saiatzen gara eta, horretarako, pertsona nagusiek gaitasun onenak gara ditzaten eta, ahal den neurrian, eragiten dieten gaiei buruz erabaki dezaten lan egiten dugu.

LANAREN ARDATZAK

- **Ekintza-unitatea.** Lurralde-elkarteen jarduerak koordinatzea, helburu bateratuak hobeto lortzeko.
- **Elkarteak ordezkatzeko eta erakundeekin harremanak izatea:** Eusko Jaurlaritza, aldundiak eta udalak, haiekin lankidetzan arituz adinekoen onerako den guztian. Era berean, autonomia-erkidegoko, estatuko eta nazioarteko organismoetan parte hartzea.
- Bizitza publikoan egiten ditugun jarduera guztien **berri ematea, zabaltzea eta lurralde elkarteekin adostea.**
- Zahartze aktibo eta osasungarriko autonomia-esparruko **programak gidatzea eta proposatzea.** Era berean, erakunde mailan mendekotasunari buruz hartzen diren erabakien partaide izatea. Gure gizarte-zentroen jarduerak prebentzio-eredu gisa bultzatzea.
- **Lankidetzak sareak bultzatzea** beste elkarte, erakunde eta entitate batzuekin, pertsona nagusien bizi-kalitatea hobetzeko ahaleginak elkarri lotzeko.

NOR GARA?

Adimen-urritasuna duten pertsonen aldeko erakundeek euskal elkar-
teak (FEVAS-Plena inclusión Euskadi) Euskal Autonomia Erkidegoan adi-
men- edo garapen-urritasuna duten pertsonen eta beren familiei zer-
bitzuak, programak eta laguntza eskaintzen dizkieten familia-elkar-
teak batzen ditu.

MISIOA

Adimen- edo garapen-desgaitasuna duten pertsonen eta haien fami-
lien eskubideak defendatzea eta sustatzea. Hori lortzeko, lankidetzan
aritzen gara beste erakunde batzuekin, eta eragin politikoa eta soziala
egiten dugu.

LANAREN ARDATZAK

- **Adimen- edo garapen-desgaitasuna duten pertsonen eta haien familien eskubideen defentsa.** Konpromiso hori gauzatzeko, eragin politikoa, gizarte-sentsibilizazioa eta adimen- edo garapen-desgaitasuna duten pertsonen parte-hartzea eta ahalduntzea sustatzen dituzten ekintzak erabiltzen dira.
- **Erakunde-garapena.** Adimen- edo garapen-desgaitasuna duten pertsonentzako laguntzen kalitate gorenerantz aurrera egiteko helburuarekin, hainbat eremutako ekintzak sustatzen ditugu: Erabateko Kalitate Ereduaren aplikazioa, berrikuntza, prestakuntza, eta etika eta gizarte-erantzukizuna sustatzea.
- **FEVAS Plena inclusión Euskadiren bazkide diren erakundeekin eta Hirugarren Sektoreko sareekin sarean lan egitea.** Ardatz honetan, elkartutako erakundeetako profesionalek osatutako batzordeen eta lantaldeen koordinazioa nabarmentzen da, baita hirugarren sektoreko sareekin estrategia eta ekintza bateratuak artikulatzea ere: Plena inclusión, EDEKA eta Sareen Sarea.

Webgunea: www.fevas.org

E-Posta: fevas@fevas.org

Telefonoa: 944 211 476

Helbidea: Kolon Larreategi, 26 behe C (Bilbo)

Facebook: @FEVAS-Plena-inclusión-Euskadi

Twitter: @fevas

BAZKIDEAK ETA BOLUNTARIOAK

Adimen edo garapen-urritasuna duten
11.985 pertsona.

12.172 familia.

2.450 profesional.

1.360 boluntario.

ZEIN ERAKUNDEK OSATZEN DUTE FEVAS PLENA INCLUSIÓN EUSKADI?

Apdema, Apnabi-Autismo Bizkaia, Aspace Bizkaia, Aspace Gipuzkoa, Atzegi, Fundación Goyeneche de San Sebastián, Gertuan Fundazioa, Fundación Usoa Fundazioa, Futubide, Gaude, Gautena, Gorabide y Uliazpi.

Webgunea: www.gizatea.net

E-Posta: gizatea@gizatea.net

Telefonoa: 944 010 959

Helbidea: Harrobi plaza, 4 - 3. solairua
(48003 Bilbo)

Twitter: @Gizatea

Facebook: @Gizatea

Linkedin: Gizatea-Euskadiko Gizartera-
tze Enpresen Elkarte.

BAZKIDEAK ETA BOLUNTARIOAK

Gizateak-ek 43 laneratzeko-enpresa biltzen ditu, 1.368 pertsona enplegatzen dituztenak, eta horietatik 836 (% 61) gizarteratzeko- eta laneratzeko-prozesuetan dauden pertsonak dira. (2019ko Gizarte Memoriaren datuak).

ZEIN ERAKUNDEK OSATZEN DUTE GIZATEA?

Badia Berri; Berezi 99 Garbiketak-Lo-rezaintza; Berjantzi; Bertatik Elikatuz; Berziklatu; Beterri Errotuz; Bidebarri Laneratzeko Enpresa; CPTex Bilbao; Ekoitzi; Ekoizan; Emaús Comercio Justo; Emaús Gipuzkoa; Emaús Servicios Medioambientales; Eskuzesku; Euskal Postalred; Euskarri; Gizartelur; Goilurra; Hazlan Irun; Ikatzbizi; Iturritek; Izarza Jatetxea; Jantziprest; Koopera Servicios Ambientales; Koopera Zaintzalan; Laiatzen; Lana-gro Servicios; Lanbide Bizia; Lanerako; Lapiko Catering; Lumaberri; Pormu; Servicios de Hostelería Peñascal; Sokaire Servicios de Limpieza; Sukalbide Peñascal Hostelería; Suspertu; Tinko Garbiketak; Urbegi inserción; Zu Mas Zaindu; Zurtek.

NOR GARA?

Gizatea - Euskadiko laneratzeko-enpresen sektoreko ordezkaritza-erakunde erreferentea da. 2007an eratu zen, laneratzeko-enpresek dituzten erronkei modu kolektibo eta eraginkorrean aurre egiteko, sektorea hobetzen eta indartzen laguntzeko, lankidetzak sustatzeko edo erakunde publikoen eta gizartearen aurrean solaskidetzak errazteko.

Integrazio-enpresak irabazi asmorik gabeko ekimen ekonomikoak dira eta lan-munduan sartzeko zailtasunak dituzten eta baztertze egoeran dauden edo egon daitezkeen langabetuen gizarteko eta laneko integrazioa eta babesak izaten dituzte helburu. Komunitatean jarduerak eta aberastasun ekonomikoak sortzen duten ekoizpen-egiturak dira, tokiko garapenarekin, gizarte-kohesioarekin eta iraunkortasunarekin konpromiso argia dutenak.

MISIOA

Gizartearen misioa ekonomia solidario bat garatzen laguntzea da, gizarte justuago baten zerbitzura, laneratzeko-enpresak sustatuz, gizarte- bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonak enplegu-merkatu arruntan txertatzeko aukerak sortzea helburu duten tresna gisa.

LANAREN ARDATZAK

- Sektorea administrazio eta erakunde publikoekin (Eusko Jaurlaritza, Euskal Enplegu Zerbitzua - Lanbide, foru-aldundiak, udalak, garapen- agentziak), beste interes-talde batzuekin (alderdi politikoak, enpresa- erakundeak, sindikatuak) eta partaidetza-espazioetan (hirugarren sektorea, elkarrizketa zibileko mahaia) solaskide izan dadin erraztea.
- Sektorea hobetzen eta indartzen laguntzea, elkartekideentzat interesgarriak diren tresnak eta jarduerak garatuz.
- Sektorearen hazkundea bultzatzea, kontratazio publiko arduratsua eta kontratu erreserbatuak sustatuz, eta gizarte-egoera ahulean dauden pertsonentzako enplegua sortzeko aukera-nitxoak identifikatuz.
- Baztertuta dauden edo arriskuan dauden pertsonen laneratzeko hobetzea, proiektuak garatuz eta enpresei aholkatuz.
- Laneratzeko enpresa bazkideen arteko lankidetzak eta lankidetzak-sareak eta -espazioetan parte hartzea sustatzea.
- Laneratzeko-enpresen kontakizun positiboa eta irudi erakargarria jakinaraztea, zabaltzea eta posizionatzea.



HARRESIAK APURTUZ

Migrazioen Euskal Koordinakundea
Coordinadora Vasca de Migraciones

NOR GARA?

Migrazioen arloan kokatzen da eta erkidegoan arlo horretan dagoen hirugarren sektoreko erakunde bakarra da. 60 gizarte-erakunde baino gehiago ditu, 200.000 pertsona ingururekin lan egiten dutenak, besteak beste, erabiltzaileak, boluntarioak, ordaindutako langileak eta gobernu-organoak, gizarte-oinarri aberatsa eta askotarikoa. Duela ia 30 urte instituzionalizatu zen, 1997an, elkarlanean aritzeko beharretik. Aniztasuna, bizikidetzeta eta feminismoak dira bere lan-ikuspegiak. Gizartea bizitzan zehar bizi garen lekua dela ulertuta eta aintzat hartuta, sarearen ikuspegia pertsonan oinarritzen da. Lana hainbat mailaren eta intersektionalitatearen ikuspegitik eta dibertsitatea aintzat hartuz artikulatzeko agertoki estrategikoan kokatzen gaitu premisa horrek.

MISIOA

Helburua etengabe aldatzen ari den sektorea biziberritzea da, eta sareko lanaren, kohesioaren eta konpromiso sozialaren aldeko apustua ziurtasunez finkatzea, migrazioen sektoreak bizitza publikoaren esparru guztietan parte hartzea erraztuko duten zubiak sustatzen jarraitzeko.

LANAREN ARDATZAK

- **Eraldaketarako eragin politikoa eta soziala.** Eraldaketa soziala sustatzea, are gehiago immigrazioaren aurkako noraez handiko une geopolitiko batean, gobernantza-guneetan parte hartuz, politika publikoetan eraginez eta sentsibilizazio-tresnak sortuz, narratibak eta diskurtsoak sustatzeko, herritarren kontzientzia bultzatzeko.
- **Elkarte-sarea sendotzea eta egituratzea.** Kide diren gizarte-erakundeak eta migrazioen eremuko elkartea osatzen duten gainerako erakundeak indartzea, bai eta ehunaren beraren beste ekimen eta espazio batzuk sustatzea ere.
- **Ezagutzaren kudeaketa.** Teknikarien potentzial ikertzailea sarearen zerbitzura jartzea, erakundearen erabiltzaileen bizi-testuinguruak aztertuko dituzten ikerketa-prozesuei ekiteko, batzorde zientifikoetan ikerketa-proiektuetan parte hartzeko, gizarte-arloaren eta Akademia-ren arteko ezagutza-transferentzia gisa, bai eta artikulatu akademikoak, txostenak eta unibertsitate-biltzarretan parte hartzea ere.

Webgunea: www.harresiakapurtuz.org
E-Posta: harresiak@harresiakapurtuz.org
Telefonoa: 695 16 98 26
Helbidea: Maiatzaren Biko kalea, 13
(48003 Bilbo)
Facebook: @harresiak.apurtuz
Twitter: @HarresiakApurtu
YouTube: @harresiak

BAZKIDEAK ETA BOLUNTARIOAK

62 erakunde sozial, etorkinek osatutakoak zein haiei laguntzeko direnak. Gizartea eraldatzeko lan egiten dute erakunde horiek.

ZEIN ERAKUNDEK OSATZEN DUTE HARRESIAK APURTUZ?

Araba: Accem, Alhouda, Bidez Bide, Bizitza Berria, CEAR Euskadi, Colombia Euskadi, Esan Akugbe, Itaka Escolapios, Mboolo Elkar, Mujeres en la Diversidad.

Bizkaia: Acabiz, Asema, Asocolvas, Ciudadanos del Mundo, Ahislama, Amiarre, Anesvad, Avaco, Bidesari, Berritzu, Bizitegi, Cáritas, Cite CCOO, CEAR Euskadi, Círculo Solidaria, CoMisioa Ciudadana Antisida, Comunidad Icbos, Cruz Roja, Ecuador Etxea, Edo Club Nigeria, Elkarbanatuz, Etorkinekin Bat, Fundación Adsis, Fundación Ellacuria, Fundación Peñasal, Ghana, Guinea-Bizkaia, Goiztir, Hegoa, Ideasur, Itaka Escolapios, Izangai, Juntar Manos, Kosmopolis, Limemia, Margotu, Médicos del Mundo, Mujeres en la Diversidad, Mujeres del Mundo, Pagkakaisa, Pertsonalde, Sikap, Solidaridad Internacional, Sunu Makaan, Unión Manfileños de Bizkaia, Zubietxe.

Gipuzkoa: Bategite Goierri, Bidez Bide Elkartea, Fundación Haurralde, Kolore Guztiak, Mujeres del Mundo, Loiola Etxea, Malen Etxea.

Webgunea: www.hirekin.net

E-Posta: hirekin@hirekin.net

Telefona: 944 029 091

Helbidea: Harrobi plaza 4, 3. solairua
(48003 Bilbo)

BAZKIDEAK ETA BOLUNTARIOAK

Hirugarren Sektore Sozialeko 78 erakundetik gora batzen ditu guztira, babesteko eta gizarteratzeko lan egiten dutenak eta horretarako 5.000 profesional baino gehiago dituztenak.

Horietako erakunde askotan, pertsona boluntarioek parte hartzen dute.

ZEIN ERAKUNDEK OSATZEN DUTE HIREKIN?

Hiru lurralde historikoetako enpresen elkarte homonimoek osatzen dute. Horiek, aldi berean, arlo eta lurralde horietan aritzen diren ekimen sozialeko erakundeak batzen eta ordezkatzeko dituzte.

AISA Araban (20 erakunde), HEDATZEN Gipuzkoan (20 erakunde), GIZARDATZ Bizkaian (38 erakunde).

NOR GARA?

Hirekin Euskadiko gizartean esku hartzeko hirugarren sektoreko enpresen elkarte da, babesteko eta gizarteratzeko lan egiten duena.

MISIOA

Hirekinek babeserako eta gizarteratzeko espazio propioaren eraikuntza sustatzen du, gizarte ekintzaren barruan. Horrez gain, sektorea garatu, duindu eta aitortu nahi du hainbat lan-ildoren bitartez:

- Lan-harremanak erregulatzea, erakundeen, eragile sozialen eta horietan lan egiten duten profesionalen arteko lan partekatu eta ardurasua oinarri hartuta.
- Gizarte-erakundeen garapenerako eta kudeaketako baldintzak hobetzeko helburua.
- Hirugarren Sektore Sozialeko beste plataforma eta sare batzuekin diskurtsoak, estrategiak eta ekimenak eraikitzea, guztiek batera.

LANAREN ARDATZAK

Helburu nagusia: Erakundeek beren xedeak ondo garatu eta betetzeko behar dituzten baldintzak ezartzea. Hona hemen abiapuntuak: lan-harremanak erregulatzea, harremana mantentzea, garapen profesional eta etikoa gauzatzea eta kudeaketa-prozesuak hobetzea.

Hiru jardueraren mota gauzatzen dira horretarako:

Ordezkaritza eta elkarrizketa

- Hirugarren Sektore Soziala ordezkatu eta ikusgarri egitea.
- Administrazio publikoekin, erakunde sindikalekin, hirugarren sektoreko sareekin eta abarrekin EAE mailako edo Estatu mailako gaien inguruan hitz egitea eta horretarako elkarteak ordezkatzeko.
- Hedapena eta sustapena.

Laguntza

- Laguntza-zerbitzuak: lan-arloko aholkularitza, aholkularitza juridikoa, kudeaketarako laguntza, etab.

Ezagutzaren kudeaketa

- Ezagutzaren kudeaketa: prestakuntza, ikerketa, hausnarketarako eta aurrera egiteko espazioak sortzea, jardunaldiak, kode etikoak garatzea, etab.
- Ingurua zaintzea: beste lurralde eta autonomia erkidego batzuetako, Estatu mailako eta nazioarteko errealitatea eta esperientziak behatu eta aztertzea.

NOR GARA?

Hirukide Euskadiko Familia Ugarien Elkarten Federazioa da.

1999an sortu zen eta irabazi asmorik gabeko erakundea da. Bere helburua seme-alabak dituzten familien eskubideak defendatzea da, familia ugarien eskubideak bereziki, bizitza politiko, instituzional, sozial, mediatiko eta enpresarialaren esparru guztietan. 2003an Onura Publikoko Erakunde izendatu zuen Eusko Jaurlaritzak.

Urte horietan guztietan zehar, seme-alabak dituzten familien beharriaren inguruan sentsibilizazio handiagoa bultzatu du Hirukidek, erakunde eta administrazio desberdinen artean. Hala, lankidetzan aritzen dira hainbat arlotan: etxebizitza, hezkuntza, fiskalitatea, garraioa, etab. Federazio honek sarri egiten ditu bilerak udalekin, foru-aldundiekin, Eusko Jaurlartzaren hainbat sailekin, alderdi politikoekin eta beste erakunde publiko (Arartekoa, Eudel,...) eta pribatu batzuekin. Horrez gain, gizarte- arloko hainbat plataforma, foro eta kontseilutan parte hartzen du kide modura.

MISIOA

Hirukideren egitekoa da seme-alabak dituzten familien eta familia ugarien eskubideak defendatu eta sustatzea, gizarte abegikorrak eta inklusiboak bultzatuko duen gizarte- eta kultura-ingurunea bultzatuz, bereziki babesik gabe edo baztertua senti daitezkeen uneetan.

LANAREN ARDATZAK

Hiru seme-alabatik gora dituzten familiek edo bi seme-alaba izanda familia-egoera desberdina dutenek osatutako kolektiboaren kasurako, Hirukidek hainbat zerbitzu eskaintzen ditu urtean zehar:

- Etengabeko informazio-zerbitzua, seme-alabak dituzten familien eta kolektiboaren inguruko lege eta araudi-berrikuntzei buruzkoa.
- Familia ugarien eskubideak aitortzearekin zerikusia duten izapide, baliabide eta lege-zalantzarako aholkularitza juridikoko zerbitzua.
- Urtean zehar jarduerak antolatzea: jardunaldi ludikoak, lehiaketak, zozketak eta aisialdiko familia-irteerak.
- Prestakuntza-zerbitzuak, gurasotasun positiboko kongresu eta hitzaldien bidez.
- Familien arteko elkartasuna eta arreta, zailtasunak dituzten familiekin bitartekari-lanak eginez eta lana, haurrentzako materiala, ibilgailuak, etxebizitzak eta abar eskaini edo bilatzeko "bilaketa-eskaintza" zerbitzua eskainiz.
- Deskontuen plana: 1.300 akordio baino gehiago Euskadiko enpreetan eta dendetan.
- Hirugazte: Hirukideko (15-25 urte) gazteen komunitatea, jarduera, ekitaldi, prestakuntza eta informazio espezifikoko eskaintzen dituen.

Webgunea: www.hirukide.com

E-Posta: hirukide@hirukide.com

Telefonoak: 945 253 602 / 688 728 931

Helbideak:

Reina Sofia hiribidea, 112 (01015 Gasteiz)

Arturo Campión, 18 (48015 Bilbo)

Pagola Gizagunea. Bascongada pasealekua, 10 (20009 Donostia)

Facebook: @hirukide

Twitter: @hirukide

Instagram: @Hirukide_euskadi

Youtube: HirukideFN

BAZKIDEAK ETA BOLUNTARIOAK

8.200 familia ugari baino gehiagok osatzen dute Hirukide (45.000 bazkide inguru). Euskadin familia ugariaren titulu ofiziala duten familien % 22 (37.000 baino gehiago) barne hartzen du.

ZEIN ERAKUNDEK OSATZEN DUTE HIRUKIDE?

Federazioa hiru lurraldeetako elkarteek osatzen dute: Hirukide Araba, Hirukide Bizkaia eta Hirukide Gipuzkoa.

Webgunea: www.lareseuskadi.org
E-Posta: lares@lareseuskadi.org
Telefona: 688 88 13 33
Helbidea: Kanpanzar Auzoa 7, s/n
(48920 Portugalete)

BAZKIDEAK ETA BOLUNTARIOAK

31 erakunde bazkide.

Boluntarioak: 500 pertsona baino gehiago.

ZEIN ERAKUNDEK OSATZEN DUTE LARES?

Araba

Juan Pablo I Egoitza, Purísima Concepción Egoitza, Joaquín Goikoetxeandia Egoitza, Nuestra señora de las Mercedes Egoitza, Alday Fundazioa, Ikatzbizi, Camilo de Lellis Fundazioa.

Bizkaia

Fundadora Siervas de Jesús Egoitza, Santa y Real Casa de Misericordia Egoitza, Calzada Fundazioa, Ntra. Sra. de los Desamparados, Beato Domingo Iturrate Fundazioa, Conde de Aresti Egoitza, Elorduy Fundazioa, Miranda Fundazioa, Aspalduko Fundazioa, Arroategui Fundazioa, Uribarren Abaroa Fundazioa, San José Etxealari Fundazioa, Ospitalarioak Fundazioa, San Juan Bautista ospitalea eta Camilo de Lellis Fundazioa.

Gipuzkoa

San José de la Montaña egoitza, San Gabriel egoitza, Mikel Deuna Egoitza, Hurkoa zainduz Fundazioa, Zorroaga Fundazioa, Ntra. Sra. De la Merced Fundazioa, Madre M^a Josefa eguneko zentroa, Gurutze Gorriaren zentro soziosanitario eta lagundua, Juan María Vianney Fundazioa, Santa Ana Egoitza, Ospitalarioak Fundazioa eta Camilo de Lellis Fundazioa.

NOR GARA?

Lares Euskadi irabazi-asmorik gabeko hogeita hamar bat erakunde baten dituen elkarte da. Erakunde horien xede nagusia mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonen laguntzea eta haiek zaintzea da.

MISIOA

Euskal Autonomia Erkidego barruan hainbat urtez adineko pertsonen eta/edo mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zerbitzura egon garen erakundeak gara.

Irabazi asmorik gabeko erakundeak gara, gizarte konpromisoak eta elkartasunak bultzatuta jarduten dugu:

- Gure zerbitzuak jasotzen dituzten pertsonen onuran pentsatuz, elkar laguntzeko harremanak garatzen ditugu,
- Hedadura eta balio guztiak hartu eta garatuko dituen arreta pertsonala eta orokorra emateko gogoak mugitzen gaitu. Baita giza kalitatez eta profesionaltasunez egiteko gogoak ere.
- Uste dugu berebiziko garrantzia dutela zerbitzua ematen duten pertsonen, eta horregatik, beren trebakuntza, motibazioa eta parte hartzea bultzatzen ditugu.
- Gure prozesuen etengabeko hobekuntzarekiko konpromisoa dugu, gure esku-hartze eta jokabideetan etika, ardura, nahiz baliabideen kudeaketaren eraginkortasuna bermatuz.
- Hirugarren Sektorearen barnean kokatzen gara Laguntza zerbitzu eta zerbitzu sozio-sanitarioetan eta Gizarte Zerbitzuen Sistemaren hobekuntzari lagunduko dion sektore solidario, egonkor eta esanguratsua lortu nahi dugu.

LANAREN ARDATZAK

- Erakundearen kudeaketa sendotzea eta haien arteko kohesioa sustatzea, benchmarking lana egitea eta sarean lan egitea.
- Bazkide diren erakundeetako pertsona taldeak ahalduntzea eta profesional bihurtzea.
- Kudeaketa globalaren inguruan aholkularitza espezializatua eskaintzea, baita pertsonen zaintzaren eta haiei emandako laguntzaren -dimentsio guztietan- ingurukoa ere.
- Formazioa.
- Kudeaketa edo laguntza-zerbitzuak hobetzeko proiektuak garatzea eta erakundearen kalitate etikoa hobetzeko tresnak ezartzea.
- Administrazio publikoekin lankidetzan aritzea, gizarte-politikak garatu eta hobetzeko.



NOR GARA?

ONCE irabazi asmorik gabeko Korporazioa da, ONCE Fundazioarekin eta Ilunion-ekin batera ONCE Talde Soziala eratzen duena. 1938. urtean sortu ginen, pertsona itsuen eta ikusmen-urritasun larria dutenen bizi-kalitatea hobetzeko helburuz. Joko-produktuak merkaturatzen ditugu, 20.000 sal-tzaile baino gehiagoren bitartez (horietako guztiak urritasuna dutenak), eta, horri esker, zerbitzu espezializatuak eskaintzeko aukera daukagu, 72.000tik gora bazkideren garapen autonomo eta gizarteratze-beharrei erantzun ahal izateko.

ONCE Fundazioa, 1988. urtean sortua, Espainiako itsuen kolektiboaren eta urritasuna duten pertsonen beste kolektibo batzuen arteko lankidetza eta elkartasuna ahalbidetzeko tresna gisa aurkeztu zen gizartean, horien guztien bizi-kalitatea hobetzeko asmoz. Helburu nagusien artean nabarmentzekoak dira honakoak: urritasuna duten pertsonen laneratzeko osoa sustatzea; kualifikazio profesionala, lan-gaitasunak eta trebetasun pertsonal zein profesionalak sustatzea (urritasuna duten pertsonen enplegarritasuna hobetzeko faktore erabakigarriak baitira horiek).

ILUNION, ONCEren eta bere Fundazioaren enpresa sozialen taldea, gizarte erantzukizunez diharduen enpresa-proiektua da, eta errentagarritasun ekonomiko eta sozialerako irizpideetan oinarrituta garatzen du bere lana.

MISIOA

ONCEren misio nagusia da pertsona itsuen eta ikusmen-urritasuna dutenen autonomia pertsonala eta integrazio osoa ahalbidetzea, dela hezkuntzan, gizartean nahiz lan arloan; horretarako, gizarte zerbitzu espezializatuak eskaintzen zaizkie.

LANAREN ARDATZAK

Milaka herritarrek ONCEren joko-produktu ezberdinak erosiz egunero egiten duten inbertsio solidarioa itzuli egiten zaio gizarteari, pertsona itsuen autonomia pertsonala eta gizarteratze osoa bultzatzen dituzten zerbitzu gisa; gizarte-zerbitzu espezializatuaren bitartez erantzuten baitzaie haien beharrezaneiei, bizitzako arlo guztietan (hezkuntza, enplegua, errehabilitazioa, laguntza tekniko egokituak, komunikazioa eta Informazioarako sarbidea, aisialdia, kirola...).

ONCE Fundazioa arduratzen da urritasuna duten pertsonen laneratzeko eta enplegu-prestakuntzarako programak sortzeaz, eta irisgarritasun osoa izango duten inguru, produktu eta zerbitzuak sustatzen ditu.

Munduan parerik ez duen enpresa-eredua da ILUNION; urritasuna duten pertsonentzako enplegua sortzen liderra da, denboraren joanean ekonomikoki iraunkorrak diren enpresa-proiektuak diseinatzen baititu.

Webgunea: www.once.es

E-Posta: ctpaisvasco@once.es

Telefonoa: 944 701 163

Helbidea: Pérez Galdós, 11
(48010 Bilbo)

Twitter: @ONCEuskadi

BAZKIDEAK ETA BOLUNTARIOAK

ONCEk 3.500 afiliatu inguru ditu Euskal Autonomia Erkidegoan eta 110 boluntario ditu guztira.

ZEIN ERAKUNDEK OSATZEN DUTE ONCE?

ONCEk beste zenbait erakunde barne hartzen ditu, estaldura eta baliabide adierazgarriak eskainita. Horietako batzuk dira Amerika Latinoko pertsona itsuekiko elkartasunerako ONCE Fundazioa (FOAL) edo pertsona gor-itsuei arreta emateko ONCE Fundazioa (FOAPS), baita kirol paralinpikoaren munduari arreta ematekoa ere. Horren barruan aipatzekoak dira Itsuentzako Kirol Federazioaren (FEDC) bultzada eta Espainiako Komite Paralinpikoari (CPE) ematen zaion babes garrantzitsua. Nabarmentzekoa da, baita, Gida Txakurren ONCE Fundazioaren lana (FOPG); urtean 140 txakur baino gehiago hazi eta hezten ditu, pertsona itsuei edo ikusmen-urritasun handia dutenei segurtasun eta autonomia handiagoa ahalbidetzeko. Fundación Baja Visión Fundazioak (FOBV) ikusmen txikia duten pertsonen bizi-kalitatea hobetu nahi du, haien autonomia pertsonala sustatuz, gizarteratzea bultzatuz, ikusmen-osasuna lagunduz, ikusmen txikia eragin dezaketen patologiak ikertu, prebenitu eta garaiz detektatzeko laguntza emanez, eta baliabide tekniko espezializatuak emanez, bai eta orientazioa eta aholkularitza emanez ere hainbat arlotan, hala nola hezkuntzan, enpleguan eta ikusmen-errehabilitazioan. Ikusmen txikiko sektoreko elkar-te-mugimenduetarekin kolaboratzen du. Ikerketari laguntzen dio prebentzioan, diagnostikoan, tratamenduetan, teknologietan eta abarretan.



REAS
EUSKADI
ekonomia alternatibo
eta solidarioa

Webgunea: www.reaseuskadi.eus

E-Posta: reaseuskadi@reaseuskadi.eus

Telefonoa: 944 160 566

Helbidea: Ekonopolo, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Poloa

Harrobi plaza 4, 2. solairua (48003 Bilbo)

Facebook: @REASEuskadi

Instagram: @REASEuskadi

Mastodom: @REASEuskadi

Linkedin: <https://www.linkedin.com/company/reas-euskadi>

BAZKIDEAK ETA BOLUNTARIOAK

Erakunde bazkideak: 130.

Langileak: 4.400.

Boluntarioak: 4.700.

Bazkideak: 27.800.

Pertsona kopurua, guztira, ESSn: 36.900.

ZEIN ERAKUNDEK OSATZEN DUTE REAS EUSKADI?

Abako, Abarka ONGD, Agiantza, Agintzari, Aireia E-Learning, Al Borde Films, Aldauri, Ametsak Sortzen, Ametxe, Ankurkulu, Aradia, Ariwake, Astindu, Berezi99, Berjantzi, Berziklatu, Bidebarri, Bideberri, Bidegintza, Bikonet, Bilbao Formarte, Biozaki, Bitamine, Bizilur, Bizitzen, Boronabila, Butroi Bizirik, Calala Fondo de Mujeres, Caritas Bizkaia, ColaBoraBora, Colectiva XXK, Criptomart, Economistas sin Fronteras, Egoaizia, EHNE Bizkaia, Ekhilur, Elkarbanatuz, Elkarbidean, Elkartenet, Emaús, Fundación Social, Equipare, Erain, Erreka Multimedia, Errotik Kooperatiba Feminista, Esther Canarias, Estudio 14 Bilbao, Estudio Matrelle, Etikalia, Eureka, Experimentziak, Finantza Etikoak, Goiener, Goilurra, Goiztiri, Grupo SSI, GuHaziakGara, Haaly Pular, Hari - Contando contigo, Harilka Elkartea, Haziz Hazi, Hegoa, Hiritik At, Hobest, Ikatzbizi, Inbiku, Ingoin, ISF-MGI, Iturritek, Izarkom, Izarza, Jantziprest, Kidekoop, Kidenda, Koalak Studios, Konekta comunicación, Koopera, Koopera Serv. Ambientales, Koopera Zaintzalan, KtK Xare, Kulturbegi, La Ilusa, La Jabonería de la Almendra, La Tercera Pata, La tienda Comprometida, Labox, Laiatzen, Lapiko Catering, Las Aldai, Louise Michel Liburuak, Lurgai, Lurkoitarrok, M3 Arteko, María Larruzea - Pedagogía Alquímica, Martín Etxea, Medicusmundi Araba, Meroliko, Migrantoria, Momentu, Mugarik Gabe, Munduz Mundu, Oikocredit Euskadi, Ojobuey, Ortutik Ahora, Pabellón 6, Pachamama Amalurra, Peñasal, Perpetum Mobile, Pikara Magazine, RAIZ. Equipo de Apoyo Social Comunitario, Reciclanet, RewindTheCity & Design, Sartu Taldea, Semilla Blanca/ Hazi Zuria, Sepra, Setem Hego Haizea, SH Peñasal, Sokaire, Sustraiak HD, Terai Cosmética, Tinko Garbiketak, Umerri Eskola Aktiboa, Urbanbat, Vegaizan, Wikitoki, Work-Lan Bizkaia, Yedra Elkartea, Zain Infancia, Zubietxe / Libu, Zurtek.

NOR GARA?

REAS Euskadi, Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea, 1997an sortu zen ekonomia solidarioa bultzatzeko: ekonomia bizitzaren zerbitzura ulertzeko eta praktikatzeko modu bat. Ekoiztea, finantzatzea, merkaturatzea eta kontsumitzea jasangarritasunera eta pertsonen ongizatera bideratutako bitartekoak -ez helburuak- izan daitezten sustatzen dugu.

Gaur egungo sistema eraldatu nahi duen mugimendu ekonomiko, sozial eta politiko baten parte gara, beste ekonomia bat posible dela frogatzen duten ekimenak babestuz.

MISIOA

REAS Euskadik Ekonomia Sozial eta Solidarioa (ESS) bultzatzen du, pertsonen, komunitateen eta planetaren zerbitzura dagoen ekonomia modu gisa.

Bizitzaren esparru guztietan burujabetza eta iraunkortasuna sustatzen duten enpresa eta entitateek osatutako mugimendu ekonomiko eraldatzailea indartzeko lan egiten dugu.

Sare gisa, Euskadin ESSri aintzatespen handiagoa ematea eta indartzea bilatzen dugu. Eta hori egitea ordezkaritza kolektiboko sare gisa, ESS eta Euskal Autonomia Erkidegoko bere ehun ekonomiko produktiboa indartzea eta ahalik eta aintzatespen handiena lortzea helburu duena.

LANAREN ARDATZAK

Sarea eta haren erakunde bazkideak indartzea: erakunde bazkideei laguntzea eta babesa ematea, eta tokiko elkarreraginen eta topaketen sustapena.

Auditoretza soziala bultzatzea (gardentasunerako, etengabeko hobekuntzarako eta kontuak emateko tresna): ESSren printzipioak betetzen diren ebaluatzea eta emaitzak zabaltzea eta jardunbide egokiak sustatzea.

Gizarte Merkatuaren garapena: kontsumo arduratsua eta bazkide diren erakundearen produktuen eta zerbitzuen kontratazio etikoa eta ikusgarritasuna sustatzea.

Eragin politikoa eta soziala: ESSren aitorpen instituzionala defendatzea, sare eta plataformetan parte hartzea eta administrazio publikoekin lankidetzan aritzea politika eraldatzaileak garatzeko.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa: ESSren balioak eta praktikak zabaltzea, kanpaina publikoak, hezkuntza-ekitaldiak eta -jarduerak, eta ekonomia solidario eta feministako prestakuntza.

Ekonomiaren eraldaketa feminista eta ekologikoa: bizitzaren iraunkortasunaren ikuspegia txertatzea, ekonomia feminista sustatzea eta erakunde-eredu bizigarri eta iraunkorrak zaintzea eta bultzatzea.

NOR GARA?

Osasun Mentaleko Euskadi federazioak buru-osasuneko arazoak dituzten pertsonen eta haien familien euskal elkarteak biltzen ditu. 1987an eratu zen, eta Onura Publikoko Deklarazioa onartuta dauka 1998tik.

MISIOA

Euskadi Buru Osasunak buruko osasun-arazoak dituzten pertsonen eta beren familiek osatutako euskal erakundeak batzen ditu eta honako helburu hauek ditu: ikerketa, trukea, ikasketa eta berrikuntza bultzatzea buruko gaixotasuna duten pertsonen eta beren familien bizi-kalitatea hobetzeko ekimenetan; Bizi-kalitatearen Ereduaren baitan politikak eta esperientziak bultzatu eta zabaltzea; buruko gaixotasuna duten pertsonen eta beren senideen duintasuna eta eskubideak defendatu eta aldarrikatzea; gizartea sentsibilizatzea, foroetan eta sareetan parte hartzea eta politika publikoak eskatzea, buruko gaixotasuna duten pertsonen eta beren senideen onurarako.

LANAREN ARDATZAK

- Buru-osasuneko arazoak dituzten pertsonen eta familiartekoen ordezkartza Euskadin.
- Buru-osasuneko arazoak dituzten pertsonen eta haien familien eskubideak aldarrikatzea eta babestea, genero-ikuspegiarekin eta intersektionalarekin.
- Elkarriketa zibilean parte-hartze aktiboa izatea, eragile instituzionalekiko eta erabakiguneekekiko elkarriketa indartzeko.
- Elkarrekin indartzea, bazkide diren erakundearen artean ikaskuntza, berrikuntza eta ikerketa trukatzeko, xede ditugun pertsonen eta familien bizi-kalitatea hobetzen duten ekimenekin.
- Federazioko kide diren elkarten lana osatzen duten zerbitzuak eskaintzea, zerbitzu juridikoa, espetxean arreta eskaintzeko zerbitzua eta aisialdi inklusiborako zerbitzua, esate baterako.
- Sentsibilizazio soziala buru-osasuneko arazoak dituzten pertsonen inklusio osorako, berdintasuna, aniztasuna eta estigma ezabatzea sustatuz.

Webgunea: www.saludmentaleuskadi.org
www.mujerysaludmental.org

E-Posta: saludmentaleuskadi@saludmentaleuskadi.org

Telefonoa: 944 069 430

Helbidea: Irukurutzeta kalea, 14 Behea esk. Arza industrialdea (01400 Laudio)

BAZKIDEAK ETA BOLUNTARIOAK

Gaur egun, 12.000 pertsona baino gehiago ordezkatzeko dituzte EAE osoan; guztira, 3.200 familia bazkide dira, eta 7.000 onuradun baino gehiago artatzen dituzte elkarteak eta Federazioak.

ZEIN ERAKUNDEK OSATZEN DUTE BURU OSASUNA EUSKADI?

Honako elkarte hauek osatzen dute Euskadi Buru Osasuna:

- AGIFES, Buru-osasun arazoa duten pertsonen eta senideen Gipuzkoako elkarteak.
- ASAFES, buruko gaixotasuna duten pertsonen eta beren senideen Arabako elkarteak.
- ASASAM, buruko gaixotasuna duten pertsonen eta beren senideen Aiarako elkarteak.
- AVIFES, buruko gaixotasuna duten eta beren senideen Bizkaiko elkarteak.

Euskadiko buruko osasunaren Fedeafor elkarte-mugimendua osatzen duten elkarteak funtsezkoak dira buruko gaixotasuna duten pertsonen eta beren familiei aholkularitza eta babesa emateko.

Herritarrek parte hartzeko espazioak eskaintzen dituzte eta kalitatezko zerbitzuak kudeatzen dituzte: harrera- eta orientazio-zerbitzuak, bizitza independentea eramateko laguntza, familian esku hartzeko zerbitzua, laguntzadun etxebizitzak, enplegurako laguntza emateko programak, eguneko arreta emateko zentroak, zentro okupazionalak, aisialdi inklusiborako zentroak...

Webgunea: www.umeekin.org
E-Posta: info@umeekin.org
Telefona: 944 110 556
Helbidea: La Inmaculada kalea 23, Barakaldo
Twitter: @umeekin
Instagram: @umeekin

BAZKIDEAK ETA BOLUNTARIOAK

Umeekin osatzen duten elkarteek bazkideen eta boluntarioen sare garrantzitsua dute Euskadin. Pertsona konprometituak, beren denbora, ezagutzak eta esperientziak partekatzen dituztenak minbizia duten adingabeen eta haien familien bizitza hobetzeko:

- 793 guraso.
- 489 laguntzaile.
- 157 boluntario.

ZEIN ERAKUNDEK OSATZEN DUTE UMEEKIN?

Ondorengo hiru lurralde-erakundeek osatzen dute Umeekin:

- ASPANAFOA (Araba).
- ASPANOVAS (Bizkaia).
- ASPANOI (Gipuzkoa).

NOR GARA?

Umeekin (Minbizia duten Haurren eta Nerabeen Gurasoen Elkarte Euskal Federazioa). Irabazi-asmorik gabeko erakundea da, 1997an sortua, eta hiru probintzietan dauden minbizia duten adingabeen gurasoen hiru elkarteek osatzen dute: ASPANAFOA (Araba), ASPANOI (Gipuzkoa) eta ASPANOVAS (Bizkaia).

Umeekin osatzen duten probintzia-elkarteei esker, hainbat ekintza, zerbitzu eta programa bultzatzen dira minbizia duten haurren eta nerabeen egoera hobea izan dadin, bai eta familia-nukleoaren gainerakoa ere, medikuntzaren, psikologiaren, gizartearen eta hezkuntzaren esparruetan zentratuta.

MISIOA

- Minbizia duten haur eta nerabeen familiak zaintzea eta laguntzea gaixotasunean eta tratamenduan zehar.
- Haurren minbiziari eta haren arazoei buruz gizartea, iritzia publikoa eta administrazio publikoak sentsibilizatzea eta haien berri ematea.
- Eragindako adingabearen eta haren familiaren beharrak eta eskubideak erakunde publikoen eta gizartearen aurrean eskatzea eta defendatzea.
- Haurren minbiziaren ikerketa sustatzea.
- Tokiko, lurraldeko, autonomiako eta nazional erakundeekin koordinatuta egotea, oztopoak ezabatu ahal izateko.

LANAREN ARDATZAK

Gizarte-arreta

Lurralde-elkarteetako gizarte-arloetatik familiaren beharrezkoak sozial, ekonomiko eta teknikoak erantzuten zaie, behar diren baliabide material eta ekonomikoak eskainiz, bai eta minbizia duten adingabeen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzeko prestazioen eta laguntzen aholkularitza eta jarraipena ere.

Laguntza psikologikoa

Lurralde-elkarteen bidez, familiei laguntzen diegu honako etapa hauetan: diagnostikoa, ospitaleratzea eta tratamendua, igorpena, gaixotzea, tratamendu aringarria eta dolua. Gainera, nerabe-taldeak eta dolu-taldeak.

Ospitaleko laguntza

Ospitaletan adingabekoen eta senideen egonaldia hobetzeko zerbitzuak, adibidez: aisialdiko jarduerak, laguntzaileentzako janari-txartelak, harreara-etxebizitzak, doako aparkalekua edo laguntza teknikoak maileguta: gurrupil-aulkiak, makuluak, etab.

Hezkuntza arloko laguntza

Lurralde-elkarteek minbizia duen haurraren edo nerabearen irakasle-talderi laguntza eta orientazioa ematen diote, eta irakasleei beharrezko tresnak ematen dizkiete adingabe onkologikoak ikaskideekin duen harremana errazteko, bai tratamenduan, bai eskola- eta hezkuntza-errutinara itzultzean.

Sentsibilizazioa eta erakunde lana

Minbizia duten haur eta nerabeen gurasoen Federazio gisa, beharrezkoa ikusten dugu haur eta nerabeen minbiziari buruzko informazioa eta sentsibilizazioa ematea gizarte-eragile guztiei, guztiok jabetu gaiten familiek aurrerakin behar dioten egoeraz.

NOR GARA?

UNAD Euskadi 1985ean sortutako sarea da, eta 2022an eratu zen juridikoki. Gaur egun, adikzioak dituzten pertsonen eta haien familien prebentzioan, tratamenduan eta inklusioan lan egiten duten 15 erakunde biltzen ditu. Urtero, sare horrek mendekotasun-arazoak dituzten 5.000 pertsona baino gehiago eta 2.500 familia inguru artatzen ditu, 500 profesional baino gehiagoren laguntzarekin eta gizarte-eragileekin eta administrazio publikoekin lankidetzan.

UNAD Euskadik arreta biopsikosozialeko eredu bat sustatzen du, adikzioak dituzten pertsonentzako esku-hartze integral eta pertsonalizatua bermatzen duena. Ikuspegi hori lurralde bakoitzaren ezaugarrietara eta beharretara egokitutako ibilbideetan islatzen da, eremu soziala, sanitarioa, laborala eta judiziala modu koordinatuan integratuz. Helburua artatutako pertsonen bizi-kalitatea hobetzea da, bai eta haien gizarteratzea bultzatzea ere.

MISIOA

UNAD Euskadi elkartutako erakundeek arteko lotura bideratu, erakunde horien artean koordinatzeko, informazioa trukatzeko eta elkartzeko eta komunikatzeko guneak sortzeko; administrazio publikoen, erakunde pribatuen eta, oro har, gizartearen aurrean adikzioen eremuei dagokienez solaskide baliagarria izango da; erakunde elkartuen artean proiektu komunak egitea bultzatuko du; eta Estatuko UNADi lagunduko dio Euskadin.

LANAREN ARDATZAK

- Erakunde elkartuen artean informazioa koordinatzeko eta trukatzeko ekintzak garatzea.
- Administrazioaren, beste erakunde batzuen, gizarte-eragileen, komunikabideen edo gizartearen beraren aurrean ahots koordinatua sustatzea.
- Administrazio publikoekiko, erakunde pribatuekiko eta organismoekiko elkarriketa, koordinazioa eta lankidetzak sustatzea.
- Elkartearen eta elkartutako erakundeek indartze instituzionala bultzatzea.
- Bere helburuak lortzeko beharrezkoak diren laguntza ofizial edo pribatuak, materialak zein giza laguntzak, eskatzea.
- Antzeko helburuak dituzten beste erakunde autonomiko batzuetan integratzea.
- Gobernu eta gobernu kanpoko beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea eta lan egitea, adikzioei modu integralean heltzeko prozesua hobetzeko eta horretan sakontzeko.
- Gizarte-mugimenduan eragitea, eraldaketa-prozesuan esku hartzeko nahiarekin, adikzioen problematikari hobeto heldu ahal izateko.
- Adikzioei buruzko egiazko informazio objektiboa sustatzea, eta informazio hori gizarte osora bideratzea.
- Elkartutako erakundeetako profesionalen prestakuntza laguntzea.
- Adikzioekin egiten den lanari buruzko metodoak eta esperientzia zabaltea, ahalik eta profesional eta lotutako pertsona gehienek etekina atera dezaten.
- Elkartutako erakundeek artean profesionalen trukea erraztea.
- Adikzioen arloko azterlanak eta ikerketa sustatzea, bai eta informazio-, prestakuntza- eta ikerketa-jarduerak egitea ere.

E-Posta: unadeuskadi@unad.org

Helbidea: Jon Arrospide 11
(48014 Bilbo)

BAZKIDEAK ETA BOLUNTARIOAK

Gaur egun, 15 erakundek osatzen dute UNAD Euskadi, eta 3 lurralde historikoe-tan betetzen du bere jarduna.

ZEIN ERAKUNDEK OSATZEN DUTE UNAD EUSKADI?

Agipad, Agiantza, Bidesari, Bizkaisida, Edex, Erroak, Etorkintza, Gaztaroa-Sartu, Gizakia, Goiztiri, Jeiki, Izangai, Sartu Álava, Zabaltzen-Sartu, Zubietxe.



Sareen sareea

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

www.sareensarea.eus

info@sareensarea.eus

Tel. 946 569 230

Iparraguirre kalea, 9 (Bilbo 48009)